

Euskal mundua zai

El Mundo del País Vasco, 1990-10-11.

Mundu osoa dago adi, zer gertatuko. Ez ditut munduan zehar gertatzen ari direnak lerrokatuko, baina gizateria osoa zer berri gertatuko zai dagoela esatea ez da gehiegikeria batean erortzea.

Komunikabideak medio direla munduak une berean bizi duen larrialdi hau gizaterian estreinatu berria den zerbait da. Batetik, munduan zirrargarri den edozerk sortzen du edonun mina edo poza; bestalde, edonun gertatutakoak ispilu erraldoi batek isladatzen ditu: edonongo herriaren askatasuna, edonongo herrialde zatituen batasuna, edonongo ideologiaren porrota, denak gertatzen dira.

Azken hamalau urtetan gertatu dira Euskal Herrian gauza gogoangarriak, batez ere Hegoaldean, eta hemen, hiru herrialde ukitzen dituen Estatutu bidez lortutako Autonomia dela kausa. Ondorio on asko, dudarik gabe; gure historian zehar lehen aldiz lortzen direnak ere ba dira. Bestalde, ez dugu Estatutuaren letran bertan Espainia berak onartu dizkigun eskubideak gauzatzeko ahalmenik erakutsi; honek kezkatzen gaitu euskaldunok, zeren eta tantakako politika murriztuz honek adierazten baitigu bitatik bat: geure ekintzaren hutsa edo okerra izan dela; edo, aitzitik, Espainiako Gobernuak jokabide murrizkor hori oso bizkor erabili duela geure arteko zatiketak eskaintzen dion bide erosoaren bitartez.

Troyako zaldiaren antzeko zerbaitetan sartu zaigu arerio zaharra geure barrutira. Ohartu, ohartzen gara beti; baina noiz izango gara gauza...

Euskal Herria, gure arteko pake eske ari zaigu gaur. Baina geurea geuk zuzendu behar dugu, ez beste inork. Hauteskundeak laster ditugu; bakoitzak bere aukera egin dezala, noski, baina berehala geure hautatuak bil daitezela, jarri burua eta bihotza koalizio bidez. Eusko Jaurlaritza osasuntsu osatzeko bidean.

Batasuna, Bergara II, ez da gaurko oraindik; utzi dezagun biharko, baina ken dezaigun zentralismoari orain arte gerauek prestatu diogun Troyako zaldia.